



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2015EKO IRAILAREN 18AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Miren Itziar Arratibel Imaz**  
**Jesus Peñagarikano Labaka**

Etorri diren zinegotziak:  
Hanot Karrera Amondarain  
Arkaitz Fraile Quijera  
Irati Ozaita Azpiroz

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2015eko irailaren 18an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

## **LEHENA:**

### **1.2015KO UZTAILAREN 30EKO AKTAREN ONARPENA**

2015ko uztailaren 30ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

BAKARRA: Onartzea 2015ko uztailaren 30ean eginiko Gobernu Batzarraren akta

## **BIGARRENA:**

### **2.- HIRIGINTZA SAILAK PROPOSATURIKO GAIAK**

#### **2.1 TOLOSAKO HAPO-AREN TOLOSANA IGERONDO 15.1 AZPIEREMUA HIRITARTZEKO PROIEKTUA ALDATZEA.**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Hirigintza sailak proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzordeari onartzea Tolosako Udalak proposaturiko 15.1 Tolosana Igerondo azpierzemuko hiritartzeko proiektua (Ibarrako udaleko lur sail batean duen eragina kontuan izanik).

Idazkariak gai hau Udalbatzari dagokiola 2568/1986 Errege Dekretuaren 50. artikuluan ezarritakoari so eginez.

Tokiko Gobernu Batzarrak Udalbatzara igorriko du gaia honek onarpena egin dezan.

### **3.- ADMINISTRAZIO AUZIETAKO 1ZKO EPAITEGIAREN 174/2015 SENTENTZIAREN BERRI EMAN**

2015eko irailaren 9an Administrazioarekiko Auzietako 1 zko epaitegiak emandako 174/2015 sententzia jakinarazten du Ainhoa Kintana Martinez prokuradoreak.

Sententzia honetan, 2013ko apirilaren 11an Ibarrako Udalbatzak onartu zuen Dirulaguntzen Plana indargabetzen da zehaztasun falta duela argudiatuz. Ez da kostatzen prozesalik ezartzen Udalaren aurka.

Idazkariak jakinarazten du hurrengo Udalbatzak 2013-2015 Dirulaguntzen Plana indargabetuko beharko duela eta ondorioz plan egokia egin beharko dela.

Gobernu Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **4.- IBARRADOK.COM DOMEINUA URTEBETEZ BERRIZTEA: AKTING ENPRESAREN 15/0114 FAKTURA**

Akting enpresa Ibarrako Udalarekin kontaktuan jarri zen orain urte batzuekin zuten Ibarradok programaren domeinuaren epealdia amaitzear zegoela jakinarazteko. Ibarrako Udalak egun ez daki programa hori mantenduko duen

Akting enpresak 15/0114 faktura aurkezten du Ibarradok.com domeinuaren berriztearen kostua zenbatekoa den adieraziz.

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENENGOA: Berriztea Ibarradok.com domeinua beste urte betez.

BIGARRENGOA: Ordaintzea Akting enpresak aurkezturiko, 48,40 eurotako, 15/0114 faktura.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari eta Akting enpresari.

## **5.- GALDERA ETA ESKAERAK**

### **5.1 EUSKAL HERRIA 18 AN EMAN DEN JARDUERA BATEN SALAKETA**

2015eko irailaren 14an, Maria Luisa Alza Arocena andreak Euskal Herria 18-2ko administratzaile gisa; 1550 erregistro zenbakiarekin idazki bat aukezten du Ibarako Udalean.

Idazki honetan salaketa egiten da honakoa adieraziz:

1.- Maizter batek ponpatze lokala erabiltzen du kaleko kotxe desberdinak konpontzeko. Bizilagunek 4.C an bizi den maizterraren bikotekidea dela adierazten dute eta Ibarako Udalari eskatzen diote egoera hau egiaztatu eta neurriak hartzea gertaera konpon dadin.

Udal Aparejadoreak ikerketa bat egin ondoren (egoera ziurtatzen duen argazkiak egiten ditu) Udal Idazkariak 573D1502134 salaketa penala jartzen du Tolosako Ertzaintzan udal jabetzako ondasunetan kalteak egiteagatik. Kalte horiek honakoak dira: ponpatze lokalaren zerraila hautsi, lanparan minak, aire hodian dagoen errejila kendu, bizilagunen elektrizitate kontsumoa erabiltzeko instalazioa bat egitea, garajeko lurra zikindu, paretak zikindu...

Euskal Herria 18-4-Cko maizterrarekin harremanetan jarri ondoren egintza EKAIN MUGIKA LARRARTE jaunak egin duela jakinarazten da.

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Ekain Mugika Larrate jaunaren aurka ez legezko erabilera (Udalaren ondasun batengan) egiteagatik zehapen espedientea izapidetzea.

BIGARRENA: Udal ondasunean eginiko kalteen balorazioa egitea eskatzen zaio Udal aparejadoreari eta balorazio horrekin Ekain Mugika Larrarte jaunari kalteen konponketak eskatzea. Kalteen konponketa borondatez ordaintzen ez dituen kasuan, prozedura penalarekin aurrera jarraituko du Ibarako Udalak.

HIRUGARRENA: Erabaki honen jakinarazpena egitea Udal Aparejadoreari, Ekain Mugika Larrarte jaunari eta Euskal Herria 18-4C etxebizitzako maizterrari, eta Euskal Herria 18ko administratzaile den Maria Luisa Alza Arocena andreari (maizter guztiak jakinaren gainean jarri ditzan).



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **5.2 EUSKAL HERRIA 18 KO 1AETXEBIZITZAKO MAIZTERRAREN EZ ORDAINTZEAK**

2015eko irailaren 14an, Maria Luisa Alza Arocena andreak Euskal Herria 18-2ko administratzaile gisa; 1550 erregistro zenbakiarekin idazki bat aukezten du Ibarra Udalean.

Idazki honetan salaketa egiten da honakoa adieraziz:

1A etxebizitzako maizterrak diru asko zor dio komunitateari, honako zorrak dituelarik:

- 79.98 (ITACE) MARTXOA
- 43.81 (KUOTA) + 28.95 (ITACE) APIRILA
- 43.81 (KUOTA) + 58.12 (ITACE) MAIATZA
- 43.81 (KUOTA) + 27.76 (ITACE) EKAINA
- 43.81 (KUOTA) + 29.76 (ITACE) UZTAILA
- 46.00 (KUOTA) + 2.31 (ITACE) ABUZTUA
- GUZTIRA: 448,12 EURO
- Irailean era ez du ordainketarik egin baina hilabetea pasa arte ezin da hau kuantifikatu

Ibarra Udalari dagozkion neurriak hartzea eskatzen dio komunitatearen izenean.

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Asier Irazusta Urdangarin, Euskal Herria 18-1A etxebizitzako maizterrari, 10 egunetako epea ematea 448,12 eurotak zorraren borondatezko ordainketa egin dezan. 10 egunetako epea kontatzen hasiko da erabaki honen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

**BIGARRENGOA:** Maizterrari jakinaraztea (egoera errepikatua denez) hurrengo hilabeteko ordainketak dagokion garaian ordaintzen ez dituen unean Ibarra Udalarekin sinatua duen kontratua ez betetzat emango dela eta zuzenean kanporatzeko agindua emango dela.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen jakinarazpena egitea, Asier Irazusta Urdangarin jaunari, Udaleko Gizarte Zerbitzuari eta Euskal Herria 18ko administratzaile den Maria Luisa Alza Arocena andreari (maizter guztiak jakinaren gainean jarri ditzan).

## **5.3 EUSKAL HERRIA 18 KO ETXEBIZITZAKO MAIZTERRAREN EZ ORDAINTZEAK**

Ikusi da Euskal Herria 18-2ko etxebizitzetako maizter batzuk ez ordaintzeak egiten dituztela eta ondorioz beste maizterrei kaltea suposatzen diela.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Ikusita araudian ez betetzearen kasuan prozedura jakin bat aurrikusi zela baina epeen kasuan hutsune bat dagoela

Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Aldatzea Euskal Herria 18-2 etxebizitzaren barne araudia eta bertan ezartzea ordainketak modu honetan egin beharko dira :

- hile bateko kanonaren ordainketa hurrengo hilean (5.en egunean edo) ordaintzea eskatzen da. Ordainketa egoki egiten ez den kasuetan zorra dagoela jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 egun izango ditu maizterrak borondatezko ordainketa egiteko. Ordaintzen ez bada, Udalak maizterraren kontratua ez betetzat deklaratu du eta maizterra kanporatua izango da.
- Zorra jakinarazi eta 15 egun horietan ordaintzen bada ordainketa egoki egin dela onartuko da. Baina, hurrengo hilean ordainketa dagokion epean egiten ez den egun beretik maizterraren kontratua ez betetzat joko da eta etxe bizitzatik kanporatzeko agindua emango da automatikoki (2.en ez betetzea ematen delako).

**BIGARRENGOA:** Erabaki honen berri eman Idazkaritzari, Gizarte Zerbitzuari eta Komunitateko administratzaileari maizterrak jakinaren gainean jar ditzan.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta erdi direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.